MUTRIKUKO HERRI-ALDIZKARIXA
2018ko ekaina 183. zenb.

KALAPUTXI



eman eskua etorkizunari

EKAINAK 10
Gizakatea

gure esku dago



2018 URTEAN EUSKARALDIA

EKAINEAN SAN JUAN SUA

TREIÑERUAK MAJURAN: IZURDIEI SEGIKA (II)

ZIRIAKO ANDONEGI MIKROIPUIN LEHIAKETA: IPUIN SARITUAK

Chen Zeqi "Tzoi"
txinatar jatorriko mutrikuarra


apain
estetika
fisioterapia
Eskerrik asko eman diguzun guztiagatik
Zuk landutako bidetik jarraituko dugu
Domingo Ibaibarriaga, 3 behea - Mutriku - 943 60 42 29 - 608 684 416- apain@apain.net


guk
gure etorkizuna
eraikitzen dugu
BATXILERGOA
LANBIDE HEZIKETA
ERDI MAILA
· Beroa sortzeko instalazioak (iturgintza, eguzki instalazioak, gasa)
· Mantentze-lan elektromekanikoa
GOI MAILA
· Administrazioa eta finantzak
· Automatizazioa eta robotika industriala
· Mekatronika industriala
· Fabrikazio mekanikoko produkzioaren programazioa
· Elikagaien industriako prozesuak eta kalitatea
· Web Aplikazioen Garapena
· Efizientzia energetikoa eta eguzki energia termikoa (2. maila)
aurrematrikula:
ekainaren 4tik 15era
lea artibai ikastetxea
HETEL
HUMANITY AT WORK
MONDRAGON
Markina-Xemein (Bizkaia) · 94 616 90 02 · info@leartik.eus · www.leartik.eus

Telefonoak

Osasuna

Larrialdiak	943 46 11 11
Anbulatorioa	943 60 43 00
DYA zentrala	943 46 46 22
Mendaroko ospitala	943 03 28 00
Botikak	
Lasuen-Elezgarai	943 19 50 26
	626 61 13 92
Lon Apraiz	943 60 32 50
	630 05 50 97
Amaia Zalduegi	669 26 22 01
Hiart Burgoa	667 33 88 90
Etxeberria (Elgoibar)	943 74 01 40
Garitaonaindia (Elgoibar)	943 74 11 77
Yudego (Elgoibar)	943 74 12 93
Barrenetxea-Etxeberria (Elgoibar)	943 74 12 77
Idoia Lafuente (Eibar)	943 25 44 10

Udala, zerbitzuak...

Udaletxea	943 60 32 44
Udaltzaingoa	943 60 70 48
	679 16 25 00
Gizarte Ongizatea	943 19 50 81
Anai Arte	943 60 34 10
Zaharren Egoitza	943 60 38 71
Eguneko Zentroa (Deba)	943 19 23 60
Turismo Bulegoa	943 60 33 78
Bake epaitegia	943 60 70 49
Kiroldegia	943 60 31 75
Liburutegia	943 60 41 82
Miruaitz pilotalekua	943 60 41 91
Ur Partzuergoa	902 30 22 22
Zakarrak eta traste zaharrak	943 70 07 99
Posta zerbitzua	943 60 30 44

Irakaskuntza

Goizeko Izarra Ikastola	943 60 36 75
San Miguel Ikastetxea	943 60 31 95
Mutrikuko Institutua	943 60 35 45
Udal Euskaltegia	943 60 30 94
Udal Musika Eskola	943 60 37 80
Haurreskola publikoa	943 60 41 19

Garraio zerbitzuak

ANSOLA taxia	638 67 23 83
ANTON taxia	666 22 19 99
XABI taxia	656 28 90 26
Lurraldebus	943 41 52 08
Pesa Autobusak	902 10 12 10
BizkaiBus	902 22 22 65
EuskoTren	902 54 32 10
Loiuko Aireportua	905 50 50 05

Bestelakoak

Parrokia	943 60 39 87
Bikario etxea	943 60 39 88
Santa Catalina eleiza	943 60 32 00

Iritzixa

Arantza Ugarte Lopetegi

NORAINO AILEGATU BEHAR DUGU?

Eguna joan eguna etorri albiste berriak sortzen dira, zein baino zein ikaragarriagoak. Nazka ematen du zenbait albiste nola haizatzen duten ikusi eta entzuteak.

Lana eskuratzeko titulua eta esperientzia eskatzen diote, normal dabilen pertsonari. Bietakoren batek huts egiten badu, erabilitako mukizapia bezala, zaborrontzira botatzen dute zure curriculuma, hori bai, birziklatzeko zaborrontzira. Papera birziklatzen da, pertsona ez, normal dabilen pertsona zabor gisa baztertzen da.

Normal ez dabiltzan pertsonek aldiz, (gezurrezko tituluekin, ikasi eta lanik egin gabe eskuratutakoekin) izen handia, ospea eta askotan laudorioak jasotzen dituzte. Euren lorpenak haizatzen dira, diru publikoarekin egiten dituzten astakeriak sekulako aurrerapen eta berrikuntza moduan saltzen dituzte... Harik eta, isilean, sator lanean ari den ikertzaileak hari matazaren punta bilatzen duen arte eta tiraka hasten den arte. Izen handiko politikoak gezurti, iruzurti, lotsagabe eta etika gabeak direla erakusten dute, baina ingurukoek, gezurti, iruzurti eta etika gabekoaren lagunek, publikoki babesten jarraitzen dute. Gezurra gezur handiagoa esanda estali nahi izaten dute eta globoa lehertu egiten da. Orduan, lan bat utzi eta bestearekin jarraitzen du, edo beste lan bat, hobeto ordaindutakoa, bilatzen diote bere lagunek; eurak ere kakaztuta eta ipurdi bistan gelditzeko beldur baitira. Lehenengo lerrotik ezkutatzen dira baina hor jarraitzen dute bigarren lerroan edo hirugarrenean soldata ederrarekin...

Normal ez dabilen pertsona lanarekin eta soldatarekin gelditzen da, normal dabilen pertsona langabezian eta soldatarik gabe.

Zer gizarte egin dugu? Zer gizarte egiten ari gara? Nolako pertsona ereduak sortzen ari gara?

Justiziaren inguruan egunotan jasotako albisteek inpotentzia sentiarazi didate. Altsasuko gazteak Guardia zibilak erasotzeko antolatuta omen zeuden, nahiz eta hori ziurtatzen duen frogarik izan ez. Sevillako “manada” osatzen zuten bost gizatxarrek 18 urteko neska ez omen zuten bortxatu, nahiz eta epaiketan jasotakoak bortxa erabili zutela frogatu. Altsasuko Guardia zibila, 24 orduan omen zen Guardia zibil, hori esan zuen bere defentsako abokatuak; Sevillako “manada”ko partaidea, aldiz, ez, uniformerik ez zeramalako. Altsasuko gazteen aurkako epaia zein izango den oraindik ez dakigu, baina San Ferminetan gertatutakoarena bai.

San Ferminetan gertatutako bortxaketa, abusua baino ez dela izan esan digute epaileek. Alegia, 18 urteko neska gazteak bost gizatxarren aurrean ez zuela behar bezain jarrera gogorra erakutsi. Bost gizatxar horien lagunen iritzia ere entzun dugu komunikabide batean. San Ferminetakoa ez zen bortxaketa izan, horrelakoak ohikoak dira gaur egun. Asteburutako entreteniga-rria....

Noraino ailegatu behar dugu?

Argitaratzailea **Karenka komunikazio elkartea**
Barrenkale 12, behea - 20830 Mutriku Tel. 635 748 393
e-posta **aldizkaria@kalaputxi.eus** - **kalaputxi2001@gmail.com**
web **http://www.kalaputxi.eus** Bloga **www.kalaputxi.blogspot.com**
Laguntzaileak **Mutrikuko Udala** eta **Gipuzkoako Foru Aldundia**
Kolaboratzaileak **Iñigo Andonegi, Josu Larrañaga, EMA, Mutrikuko Institutua, Txantxangorri.**
Tirada **2.200 ale** Lege Gordailua **SS-787/01** ISSN **1579-4792**
Inprimategia **EUSKALINPRI** Banaketa Kalaputxi

Kalaputxi Herri-Aldizkarixak
Erakunde hauen diru laguntza jasotzen du:

Mutrikuko Udala

Gipuzkoako Foru Aldundia

www.lurraldebus.eus

900 300 340

astelehenetik ostiralera

DB03 LEKEITIO-DONOSTIA

Lekeitio	6:15	9:50	12:50	17:50	20:00
Ondarroa	6:40	10:15	13:15	18:15	20:15
Mutriku	6:45	10:20	13:20	18:20	20:30
Donostia	7:55	11:30	14:30	19:30	---

DB03 DONOSTIA-LEKEITIO

Donostia	8:00	11:00	14:30	18:00	20:30
Mutriku	8:50	11:50	15:25	18:50	21:20
Lekeitio	9:35	12:35	16:10	19:35	22:05

DB04 ONDARROA-MALLABIA

Mutriku	7:15	orduro	20:15	21:25	22:15	22:45
Mendaro	7:50	orduro	20:50	22:05	22:50	22:55
Eibar	8:15	orduro	21:15	22:30	22:45	23:15
Mallabia	8:30	orduro	21:30	22:45	---	---

DB04 MALLABIA-ONDARROA

Mallabia	6:00	6:45	orduro	20:45	21:25
Eibar	6:10	7:05	orduro	21:05	21:45
Mendaro	6:35	7:35	orduro	21:35	22:10
Mutriku	6:55	7:55	orduro	21:55	22:30

DB05 MUTRIKU-ZUMAIA

Mutriku	6:25	9:25	11:25	13:25	16:25	18:25
Deba	6:40	9:40	11:40	13:40	16:40	18:40
Zumaia	7:10	10:10	12:10	14:10	17:10	19:10

DB05 ZUMAIA-MUTRIKU

Zumaia	8:10	10:10	12:10	15:10	17:10
Deba	8:40	10:40	12:40	15:40	17:40
Deba	9:15	11:15	13:15	16:15	18:15
Mutriku	9:25	11:25	13:25	16:25	18:25

DB06 ONDARROA-SORALUZE

Mutriku	8:45	10:45	12:45	14:45	17:45	19:45	21:45
Mendaro	9:20	11:20	13:20	15:20	18:20	20:20	22:20
Soraluze	9:40	11:40	13:40	15:40	18:40	20:40	22:40

DB06 SORALUZE-ONDARROA

Soraluze	7:40	9:40	11:40	13:40	16:40	18:40	20:40
Elgoibar	7:45	9:45	11:45	13:45	16:45	18:45	20:45
Mendaro	8:00	10:00	11:00	14:00	17:00	19:00	21:00
Mutriku	8:20	10:20	11:20	14:20	17:20	19:20	21:20

larunbat, igande eta jai-egunak

DB03 LEKEITIO-DONOSTIA

Lekeitio	8:00	12:30	17:00	19:00	
Ondarroa	8:25	12:55	17:25	19:25	
Mutriku	8:30	13:00	17:30	19:30	
Donostia	9:40	14:10	18:40	20:40	

DB03 DONOSTIA-LEKEITIO

Donostia	10:30	14:30	17:00	20:30	21:00
Mutriku	11:20	15:20	17:50	21:20	21:50
Lekeitio	12:05	16:05	18:35	22:05	22:35

DB04 ONDARROA-MALLABIA

Mutriku	7:15	orduro	20:15	21:25	22:15
Mendaro	7:45	orduro	20:45	22:5	22:20
Eibar	8:10	orduro	21:10	22:30	22:45
Mallabia	8:25	orduro	21:25	22:45	---

DB04 MALLABIA-ONDARROA

Mallabia	6:50	orduro	21:45
Eibar	7:00	orduro	22:00
Mendaro	7:35	orduro	22:35
Mutriku	7:55	orduro	22:55

DB05 MUTRIKU-ZUMAIA

Mutriku	8:25	10:25	12:25	14:25	16:25	18:25	20:25
Deba	8:40	10:40	12:40	14:40	16:40	18::40	20:40
Zumaia	9:10	11:10	13:10	15:10	17:10	19:10	21:10

DB05 ZUMAIA-MUTRIKU

Zumaia	9:10	11:10	13:10	15:10	17:10	19:10	22:10
Deba	9:40	11:40	13:40	15:40	17:40	19:40	22:40
Deba	10:15	12:15	14:15	16:15	18:15	20:15	23:15
Mutriku	10:25	12:25	14:25	16:25	18:25	20:25	23:25

DB06 ONDARROA-SORALUZE

Mutriku	9:45	11:45	13:45	17:45	19:45	21:45
Mendaro	10:20	12:20	14:20	18:20	20:20	22:20
Soraluze	10:40	12:40	14:40	18:40	20:40	22:40

DB06 SORALUZE-ONDARROA

Soraluze	8:40	10:40	12.40	16:40	18:40	20:40
Elgoibar	8:45	10:45	12:45	16:45	18:45	20:45
Mendaro	9:00	12:00	13:00	17:00	19:00	21:00
Mutriku	9:20	12:20	13:20	17:20	19:20	21:20

www.euskotren.eus

Bilbo - DEBA - Donostia

	Lehena A-O	Lehena L-I	Azkena egunero
Bilbo		7:00	20:00
Eibar	6:14	7:14	21:14
Elgoibar	6:24	7:24	21:24
Mendaro	6:33	7:33	21:33
DEBA	**6:44**	**7:44**	**21:44**
Zumaia	7:00	8:00	22:00
Zarautz	7:08	8:08	22:08
Orio	7:15	8:15	22:15
Errekalde	7:29	9:29	22:29
Donostia	7:38	9:38	22:38

Donostia - DEBA - Bilbo

	Lehena A-O	Lehena L-I	Azkena egunero
Donostia	5:50	7:50	20:50
Errekalde	5:59	7:59	20:59
Orio	6:14	8:14	21:14
Zarautz	6:20	8:20	21:20
Zumaia	6:29	8:29	21:29
DEBA	**6:43**	**8:43**	**21.43**
Mendaro	6:52	8:52	21:52
Elgoibar	7:01	9:01	22:01
Eibar	7:11	9:11	22:11
Bilbo	8:20	10:20	23:20

Bizkaibus 902 222 265

ONDARROA - BILBO

astelehenetik ostiralera

	lehena	azkena
A3916 Ermuatik	5:40	19:40
Mutrikutik irten: 6:25, 7:25, 15:25		
A3915 Durangotik	6:10	20:10

jai egunak

A3916 Ermuatik	6:40	20:40
A3915 Durangotik	7:10	20:10

BILBO - ONDARROA

astelehenetik ostiralera

	lehena	azkena
A3916 Ermuatik	7:10	22:10
Mutrikuraino: 14:10, 18:10, 20:10		
A3915 Durangotik	7:40	21:40

jai egunak

A3916 Ermuatik	8:10	22:10
A3915 Durangotik	8:40	21:40

ordutegi eta geltoki guztiak hemen:

www.kalaputxi.eus/garraioa

SU ARTIFIZIALAK

Mutrikun lotura haundia dakagu Suarekin eta baita gauzak erretzearekin, nahiz eta borondate onenarekin egindakoa izan. Gaur Su Artifiziailei tokatzen zaie, aurten berreskuratuak jaietarako. Honen aurka entzun ditugun argumentazioak, txaplero hutsak dira gure ustez.

Su hauen truke gazteentzat ez da kontzerturik kenduko, edota jarduera kulturalarik desagertuko. Su hauek ez dira gastu lotsagarri bat ezta. Interpretagarria izan daiteke hain gustoko izan ez dituen persona batentzat. Baina interpretagarria bezain errespetagarria herriko beste edozein ekitaldi bezalaxe. Hala ere, ikusten dugunaren arabera, errazagoa da ekitaldia kritikatu eta baztertzea. Okerrago oraindik jendeari konbentzitu nahi izatea horrela izan behar dela, direnak direla.

Su artifizialak gure taldeak, B+I-k, proposatu zituen aurtengo aurrekontuen debatean. Eta onartuak izan ziren. Zertarako Su artifizial hauek?

1- Herriaren autoestimua nolabait altxatzeko. Jasan dugun krisia momentuz albo batera utzi dugula erakusteko.

2- Diru kopuru honekin (6.000 €) ahalik eta jende gehienarengana heltzeko, belaunaldi ezberdinak batzen dituen espektakulo bat izanik.

3- Mutrikuk marko zoragarria eskaintzen duelako suak ikusteko.

4- Eta garrantzitsuena, jende askoren eskaera bati erantzuteko. Ez da gure kapritxua izan.

Bukatzeko, Mutrikuk duen egoerarekin, txipa aldatu beharrra daukagula uste dugu. Noizbait boikotaren ordez Baikota landu, bata besteari lagunduz. Mutrikuk, bost mila mutriku ditu; ea bat egiten dugun horrelako baten. Hala izan bedi

Berdeak + Independenteak

AGUR, JUSTO

Joan egin zara, bat-batean, isil-isilik... Gazte eta eder rokeroak bezala... Ikasle, lagun, senide, taldekide... denetik izan zara... Goizeko Izarra antzerki taldeko Markesa zeu izan zara, zalduna ere bai "Ostalarisan" eta beste hainbat pertsonaia ere gorpuztu dituzu... Aktore bat behar genuenean beti jotzen genuen zugana... eta libre zeunden guztietan lagundu diguzu... Ordenagailua, telefonoa ez dabil... Justori deitu eta zu beti prest begiratu eta berriro martxan jartzeko, konponbidea eduki duen guztietan... Gure Esku Dagok galdeketa egin zuenean, hortxe zeunden zu, sareko akatsak edo ordenagailuko arazoak konpontzeko... Demasakoak euskararen inguruko azterketa egin genuenean ere hortxe zinen... Ikastolako guraso elkartean, Mutriku Futbol taldean, eta gazteago zinela musika taldeekin... Handia zinen fisikoz eta izatez... Hutsune handia utzi diguzu... Mila esker guztiagatik, Justo...

GOIZEKO IZARRA Antzerki Taldea

AURREKONTUEN AURREAN BILDURI ERANTZUNEZ

Legealdi honetan, udalean dagoen indar oreka dela eta, gauzak aurrera ateratzeko zailtasunak dauden arren, aurrekontuak aurrera atera ahal izan ditugu, legealdi hasieratik garbi izan baitugu negoziaketa eta elkarrizketa gakoak izan behar direla beste udal taldeekiko harremanetan.

Bilduk legealdiaren hiru urteko ibilbidearen gogoetan kudeaketa ahula egozten digu. Aurten Aldundiak Mutriku-Deba errepidea hobetzea erdietsi izana, udalaren kudeaketari esker, Mikel Deuna egoitzaren behealdean eguneko zentroaren lanak egiaz martxan daudela nabaritzea, Mutrikurentzat oso onuragarria izango den Arrietakua jauregia ikusgai bihurtzea, Egañaneko frontoiari estaldura jartzeko ekimena abian jartzea edota aurki Jose Maria Altzibar kaletik Musika Eskolako parera igogailua jartzeko iaz proiektua egin eta aurten gauzatzen hastea dira, besteak beste, kudeaketa "ahul" horren ondorioak. Eta beste hainbat daude oraindik bidean.

Badirudi, orobat, azken urteetan ez bezala, udalak soberakina izatea ez zaiela atsegin. Guk, ordea, udalak bizi izan dituenak bizi izanda, gaur egun dirua edukitzea albiste oso ona dela deritzogu. Nolanahi ere, soberakina ez da berez sortzen den zerbait. Ekonomiaren ibilbide baikorrak sarrerak handitzeaz gainera, diru partidetan zorroztasunez jokatzeak, diru-laguntzetara aurkezteak, egin beharreko gauzetan gain finantzaketaren jokoan ez sartzeak, dirua zentzuz gastatzeak,... ekarri gaituzte dugun egoera ekonomiko honetara. Ez gaude, ordea, lo egoteko. Gorago aipatu direnak eta beste hainbat (komentuko teilatua berritzea, Sanmikolla-Moila malda egonkortzea, Citroen gaineko parkea, laguntza beharrean dauden 80 urtetik gorako herriko pertsonen beharrak aztertu eta hobetze plana, e.a.) ditugu berehala abian jartzeko.

Informazio ezaz ere ari diren arren, ondo dakite jakin, onartuko ez duten arren, zernahi dela ere, berehala berri ematen zaiela, hala, denon artean erabaki ahal ezagun.

Hemen, su artifizial gutxi eta Mutrikurentzat ongizate maila handiagoa erdiesteko ilusio handia dago.

Betiko hitzaldi eta mezu zaharkitu eta errepikakorraz ez gaituzte ezarri dugun gure bidetik aterako.

Mutrikuko EAJ-PNV Udal taldea

ASKO MAITE ZAITUGU, JUSTO

Geurea izan zara, etxekoa, etxekoena... eta, aldi berean, librea... herrikoa, herritarrena, denona... Zu sortu zinen enborretik etorri zinen guregana... poliki, pausoka... Bidean lagun asko egin zenituen eta hortxe elkartu ginen, bidean... Bikote bihurtu ginen. Aske baina konpromisoak hartuz urrats sakonak eman genituen... bizi berriak sortu... lauko familia osatu... Une ederrak, une zoriontsuak eta tarteka malko gaziak... osasunak eta bizitzak ekarritakoak... Denak pasa ditugu elkarrekin, elkarri lagunduz elkarren eutsigai bihurtuz... Eta etxetik kanpora ere leku askotara iristeko denbora hartu dugu... han eta hemen, herrian, herrigintzan... pausotxoak emanaz... Semeen afizioek bultzatuta, norbere afizioei jarraituz... kirola, musika, kultura, euskara...

Part! egin du bihotzak, hainbeste maitatu duen bihotzak.

Bukatu! Bizitza bukatu egin da.

Agenda konpromisoz beteta gelditu da... geldirik...

Eta zure ondokoon bizitza... hutsune handi-handiak inguratuta...

Baina bidea markatuta utzi duzu eta hortik jarraituko dugu...,

eta bide berriak irekiko ditugu...

bakoitzak bereak...

aske baina konpromisoak hartuz....

Justo, gizon handia izan zara....

Asko eman diguzu...

Asko maite zaitugu...

Asko maite zaitugu...

Apain eta familia

(gutun gehiago 10. orrialdean)

EKAINAK 10, GIZA-KATEA

eman eskua etorkiZUnari

2013an *Gure Esku Dago* Euskal Herriaren erabakitze eskubidearen aldeko herri plataforma sortu zenetik, bere indarrak ideia ezberdinen elkargune bilakatuz, garrantzizko zenbait ekintza eraman ditu aurrera. Oraingoan, herri-kontsultak hiri handietara bideratzen doazen bitartean, Donostia-Bilbo-Gasteiz bilduko dituen giza-katea osatu nahi du ekainaren 10ean eguerdiko 12:00etatik 12:30etara iraungo duena. Mutrikuarrok ere parte hartuko dugu giza-kate horren bi kilometro osatzen. Hona antolatzaileekin hitz egindakoa.

>> Zer da Gure Esku Dago?

Herri plataforma plural eta parte hartzailea gara, hiru printzipiotan oinarritzen dena:

1) Herri bat gara;
2) Erabakitzeko eskubidea dugu;
3) Herritarron unea da.

Printzipio horietan baikor, errespetuz eta elkarguneak bilatuz jokatzen dugu, eta irekiak ditugu ateak nahi duten guztientzat, benetan sinesten dugulako eztabaidak aberasten gaituela.

Antolaketa aldetik bozketa bidez osatzen diren herri batzordeak, eskualdekoak, probintziakoak eta nazio mailakoak ditugu. Bazkidetza irekia dugu kuota maila ezberdinekin, bakoitzaren egoera bada egiterik), ekonomikora egokituz (internet bidez eta beste diru iturrietara ere jotzea dugu batzorde bakoitzaren baitan.

>> Zer egin duzue sortu zinetenetik?

Antolakuntza sarea osatzeak, jakina, bere lana eman du. Etengabeko prestakuntza lanean aritzea izan da bigarren lan garrantzizkoa, horren ildotik argitalpen batzuk atera dira: "*Eskura*" oinarrietan finkatzeko; "*Gogoeta elkarrekin*" eztabaida sortu eta analisi politikoetan sakontzeko; "*Protokoloa*" galdeketen gauzatzea bide egokietatik eramateko; eta "*Prest*" bide-orria 2019ra begira.

Bestalde, gure eskubideak aldarrikatzeko zenbait kale-ekintza egin dugu, horien artean, 2014ko ekainaren 8an Durango-Iruña giza-katea; 2014ko azaroaren 8an Zurriolako hondartzan pertsonek osatutako mosaiko erraldoi bat gauzatu zen herri-galdeketetan parte hartzea bultzatzeko; 2015eko ekainaren 21ean "borondateak ehuntzen" ekintza izan zen herri-alde bakoitzean, hautestontzi bidez nahi genuela erabaki aldarrikatzen Urumearen bi aldeak bete ziren oihalez), eta 2017ko irailaren 16an manifestazio jendetsua egin zen Bilbon.

Galdeketen atala izan da bestea; herri txiki eta ertain askotan eraman da aurrera eta hirietara bideratzen doa gure lana. Parte hartze ezberdinak zan dira eremuen arabera. Azkenengo kontsulten datuak jakiteke, 189.000 pertsona mobilizatu izan dira aurreko kontsultetan.

Mutrikun 2014ko giza-kateari begira erabakitzeko eskubidea aldarrikatzeko osatu genuen batzordea, eta ordutik ari gara lanean. 2015eko ekainean, han izan ziren gure herriko oihalak Donostian, eta 2017an gauzatu genuen herri galdeketa Mutrikun, non 1600 lagunek eman zuten euren iritzia hautestontzietan.



>> Zertan ari zarete?

Herri-galdeketak euren bidea egiten doaz falta diren herrietan, eta Irun eta Donostia bezalako hirietan. Gaur egun antolakuntza osoa ekainaren 10eko giza-katearen prestaketan gaude buru-belarri sartuta. Donostia-Bilbo-Gasteiz lotu nahi ditugu eskuz esku elkarri helduta, Euskal Herri honek etorkizunerako dituen nahiak eta helburuak elkarrekin aldarrikatuz. Nafarrak zein iparraldekoak ere lagun izango ditugu. Gatazka politikoa erronka demokratiko bilakatu nahi dugu, eta Euskal Autonomi Erkidegoko Lege-

etorkizu





biltzarrean ere aldarrikapen horrek eragina izatea. Eguerdiko 12:00etatik 12:30etara osatuko da giza-kate hori.

>> Nola begiratzen diozue geroari?

Itun soziala sustatzea da gure lana, eta horretan jarraituko dugu. Datorren urterako erronka polita jarri diogu geure buruari: 2019 arrazoiren bilketa erabakitze eskubidearen gauzatzea aldarrikatzeko. Horretarako bilguneak antolatuko ditugu, eta 2019 arrazoi horiek biltzea izango da gure lehenengo lana, kontsentsua izanik ideien amalgamatzaile. Aldi berean, ezagutzera heldu behar gara zeintzuk diren gure beharrak zein gure mugak, ondoren, lehentasunak adostasunez ezarriz gure eskubideak defendatzeko.

Pertsona zoriontsuak herri libre batean nahi ditugu, eta horretarako oinarrizkoa dugu ERABAKITZE ESKUBIDEA.

>> Zein ardura hartu duzue mutrikuarrok ekainaren 10eko giza-katea gauzatzeko?

Ez gara saltsa txikian sartu. Bi kilometro osatzearen erronka hartu dugu mutrikuarrontzat; horrek nahi du esan gutxienez mila lagun behar ditugula distantzia hori osatzeko, eta izena eman dutenen kopurua oraindik handia ez izan arren, konfiantza dugu data hurbildu ahala, mutrikuarrek euren maila emango dutela. *Kalaputxi* aprobetxatuz dei egiten diegu herritarrei euren izenak ematen saia daitezen ahalik eta azkarren.

Hartu dugun bi kilometroak Mutriku eta Deba lotzen duen biribilgunetik ezkerretara dagoen *Danobat* enpresa inguruan hasi eta *Errotazar* futbol zelai aldera eginez, tunelera sartzen den trenaren zubi parerainokoa da; tolosaldekoekin lotuko gara bertan. Pentsatuko duzuen bezala, babes handirik gabeko errepide zatia da, beraz arduradunen lana izango da arriskuak kontuan izanik behar bezalako neurriak hartzea. Egun eguzkitsua egiten badu, ur hornitzaileak ere izango dira, baina komeni da mendira joaten garenean bezala bakoitza beharrezkoarekin hornituta joatea. *Errotazar* futbol zelaiko komunak erabilgarri izango ditugu.

>> Nola antolatu duzue eguna? Zer egin behar du bertaratu nahi duenak?

Lana saretu egin dugu. Zenbait pertsonak hartu dute jada zerrendak osatzen joateko ardura, euren lagunekin, familiakoekin, eta abarrekin jarriko dira kontaktuan eta orriak osatzen joan ahala igorriko dizkigute. Kontaktu hori izan ez dutenek eta kateko partaide izateko asmoa dutenek, egunero Beheko Plazan jartzen dugun mahaian beren izena eman dezakete. Izenarekin batera 5 euro ordaindu behar dira gastuetan laguntzeko, eta, opari, zapi bat emango zaio. Harreman zuzena izateko e-posta ere eskatuko da edozein informazio uneoro eskura izateko, adibidez autobusen ordutegi, funtzionamendu etab. Beste hedatze sistemak ere erabiliak izango dira. Umeen izenak ez ditugu jasoko, nahiz eta zenbatuak izango diren "*haur*" bezala. Zerrenda hauek ekintza honetarako soilik erabiliko dira eta ezabatuak izango dira "datuen babes legeak" agintzen duen eran.

Debaraino iristeko autobusak jarriko ditugu beharraren arabera (lau ditugu aurreikusita hiru joan-etorri eginez orduro). Kontuan izan behar, ordu baterako betetzen direnean autobusak, ordu bat beranduago izango dela hurrengoa, horregatik komeni autobuserako txartelak aurrez hartzea ordu jakin batean joan nahi dutenek. Txartelak 3 euro balioko du. Oinez joango diren taldeak ere hasiak dira antolatzen.

Alaitasuna izango da giza-katearen ezaugarrietako bat, beraz eskatzen dugu instrumentu musikal, txilibitu, megafonia..., edozer tresna eramateko unea alaitzeko. Baita ere eskatzen dugu izena ematea, arestian aipatu bezala, antolakuntzaz arduratzeko prest egongo diren pertsonei.

>> Mahaiak egunero jartzen dituzuela aipatu duzue. Noiz eta non daude kokatuak?

Egunero Beheko Plazan arratsaldeko 18:30etatik 20:30etara astelehenetik ostiralera, eta larunbat eta igandean 13:00etatik 14:30etara. Eguraldiaren arabera portu aldean jartzea ere aurreikusita dugu. Mahaian salgai izaten ditugu kamisetak, zapiak, biserak, motxilak...



ARRIETA
AUTOZERBITZUA
Aliprox
J.M. Altzibar etorbidea · 943 60 31 01

ASTIGARRAGA ANAIAK, S.L.U
ERAIKETAK
Tel.: 943 60 40 86 / 667 411 938
e-mail: astigarragamutriku@outlook.es
Txurruka Tteak., 28 behea - 20830 Mutriku (Gipuzkoa)

PENTSIO DUINAK ESKATZEN

Aspaldiko aldarrikapena dute pentsiodunek pentsio duinak jasotzearena. Mutrikun ere aldarrikapen hori gogoratzen dute astelehenero Goiko plazan elkartuta. Gaiari heltzeko eta igoera askotan sinboliko bat gaindituko duen soluzioa eskatzen dute. Pentsiodunek diotenez, pentsio duin bat izan daiteke 1080 euroko pentsio bat. Bizitzaren kostua etengabe altzatzen doan neurrian, gero eta murritzago geratzen da bizitza osoa lanean emandako pentsiodunen saria. Eta aurrerantzean ere elkartzen eta aldarrikatzen jarraitzeko asmoa dute.



TURISMO ERAGILEAK MUTRIKUN

Aldundiaren SnSn Region Turismo bulegoak antolatuta, Donostialdean bisitariak hartzen dituzten eta haiei turismo-produktuak eskaintzen dizkieten turismo-eragileekin topaketa egin zen maiatzaren hasieran. Helburua, gure herriak bisitarientzat duen erakusgarritasuna zuzen-zuzenean ezagutzea. Eragile horiek beren ibilbide turistikoetan Mutrikuren eskaintza ere sartzeko ariketa izan da. Udan gure herria bisitatuko duten asko orain eragile horiekin egindako topaketari esker etorriko dira. Ea ba, datozenek herrian etekina uzten duten.



ARNASGUNEAK, EUSKARAREN LURRALDEA

UEMAk eta euskara udal-zerbitzuak antolatuta, maiatzaren 21etik 27ra bitartean *Arnasguneak: nondik gatoz eta nora goaz?* erakusketa izango da ikusgai Zabielen. Institutuko DBHko ikasleak bertatik igaroko dira gure herriaren eta gure hizkuntzaren egoeraren berri jasotzeko. Ikasleez gain, erakusketa ostegunean eta ostiralean 18:00-20:00 eta larunbatean eta igandean 12:00-14:00 ordutegian herritar guztientzat zabalik egongo da.



ASTO KAKA EGUNA

Jai batzordeak Malen Jaixetarako dirua ateratzeko asmoarekin antolau zuen egun hau hilaren 5ean. Eguna asto kaka lehiaketarekin hasi zen, ordubatean. Zoritxarrez, astoak neurtutako eremura sartu aurretik egin zuen kaka lehen aldiz. Hori dela eta, bizpahiru orduz zain egon behar izan ziren herritarrak saria nori egokitu zitzaion jakiteko. Ondoren bazkaria izan zuten egunaren antolatzaileek. Arratsaldeko zazpietan kantu poteoa hasi zuten Zubixatik, eta amaitzeko gauean bi kontzertu antolatu zituzten Gaztetxean: Jasan eta Mugi Panderoa erromeria.



ERRUGBI PARTIDUA BERRIATUAN

Errugbi erakustaldi bikaina eskaini zuten Mutrikuko eta Zarauzko taldeek Berriatuan jokatu zuten lagunarteko partiduan. San Gregorio jaiei hasiera emateko 14 urte azpiko eta 12 urte azpiko jokalari gazteak bildu ziren bertan. Gerturatu ziren guztiak ikuskizun ederraz gozatzeko aukera izan zuten; bi taldeen indarrak nahiko berdinduta ibili baitziren. Partiduaren bukaeran, ohikoa den bezala hirugarren denboraz gozatzeko tartea izan zuten.



MADERAREN TXORIAK SARITUAK

Maiatzeko lehenengo asteburuan Txori Kantarien Gipuzkoako Txapelketa jokatu zen Arrateko zelaietan, eta han izan ziren Unai Madera eta Josu Burgaña *Apallu* beren txoriekin batera. Lan bikaina egin ostean, Unairen guardantxoloa eta mistoa txapeldunorde gertatu ziren. Josuren guardantxoloa, hamargarren sailkatu zen. Gipuzkoako Txapelketako emaitzari esker Euskadiko Txapelketara sailkatu ziren, Galdonan jokatu zena. Bertan, Gipuzkoako, Bizkaiko eta Arabako guardantxolo eta misto onenak elkartu ziren goiz euritsu eta hotzean. Unaik eta Josuk eta beren txoriek ez zuten egun ona izan eta, tamalez, aurreko postuetatik urrun amaitu zuten. Hala ere, datorren urtean gogotsu jarraituko dutela aurrera dute.



WIKITEKA: EUSKARAZKO LIBURU LIBREEN BILTEGIA

Wikilaria baldin bazara, aski ezaguna egingo zaizu Wikipedia entziklopedia askea. Gaur egun edozein gairi buruzko informazioa bertan aurkitu dezakezu, eta, askok eta askok erabiltzen dute beraien eguneroko lanean. Wikipedia, lankidetzaz editatua, eleanitza, interneten argitaratua, eta Wikimedia Fundazioak (irabazi asmorik gabeko erakundeak) sustengatua da. Horrez gain, beste hainbat aukera dugu: Wikimedia Commons (munduko irudi libreen biltegirik handiena), Wikidata (datubase erraldoia), Wikhiztegia eta Wikisource. Azken hori jatorrizko testu libreen liburutegi askea da. Bertan lizentzia librea duen jatorrizko edozein testu jar daiteke. Beraz, Wikiteka azken horren euskal bertsioa dela esan genezake. Bertara libreak diren jatorrizko liburuak igo, transkribatu eta antolatzen parte har dezakegu. Euskal Wikilariok badugu zer egin!

MALEN JAIETARAKO KARTEL LEHIAKETA

Malen Jaixak iragartzeko kartel-lehiaketa antolatu du Udaleko kultura sailak. Batetik, edozien adineko egileek egin dezaketen kartel nagusia aukeratuko da; bestetik, umeen eguna aurkeztekoa, 16 urte azpikoek egindakoa. Sariak, 300 euro kartel nagusiaren egilearentzat eta 100 euro Umeen egunekoa aurkezteko kartelaren egilearentzat. Kartelak ekainaren 13a baino lehen aurkeztu beharko dira udaletxeko harreran, 9:00-14:00 ordutegian.

IÑIGO AGUIRRE, BIGARREN GASTEIZEN

Maiatzaren seian Gasteizen jokatu zen Martin Fiz maratoia eta maratoi-erdiaren proba. Maratoi erdian, 21,097 kilometroko proban, Iñigo Aguirre mutrikuarra hirugarren sailkatu zen 1:13:50 denbora eginda, irabazleak baino 5:05 beranduago helduta. Punta-puntan dabilela erakutsi du berriz ere Iñigok, eta etorkizunean bide horretan jarrai-tzeko asmotan dago. Hor ikusiko dugu Debako bidean korrika eta bizikletan bere prestaketa burutzen. Animo eta bejondeizula, Iñigo!



ARNOKO MENDI LASTERKETA

Ekainarekin batera helduko da Arnoko mendi lasterketaren hamalaugarren edizioa, hilaren 3an. Izena ematea maiatzaren 28ra arte egin ahal izango da antolatzaileen web orrialdean: www.burumendi.org. Ibilaldia egitera doazenek egunean bertan ere eman ahal izango dute izena. Beti bezala, ibilaldia goizeko zortzietan hasiko da Goiko plazan; lasterketa, goizeko hamarretan.





APAINGO AMABIRJINAK 50 URTE

Maiatzean 50 urte bete dira orduko mutrikuar mendizaleek Apaingo Amabirjina gaur egun ezagutzen dugun tokian ipini zutenetik. Efemeridea ospatzearren, Burumendi Mendi Elkarteak irteera berezia egin zuen maiatzaren 6an, Apain eta inguruko kobazuloak bisitatuz. Bildutako gazte eta helduek gozatu egin zuten irteerarekin, eta Elkartean sortu berria den Espeleologia taldearen eskutik etorkizunean horrelako irteera gehiago egiteko borondatea berritu zuten.

MUTRIKUK ERE SINESTU DIO

Dagoeneko denontzat ezaguna den bortxaketa-auziaren inguruko epaia eman ostean Mutrikuko herria ere mobilizatu zen protesta egiteko eta "*Ez da abusua, bortxaketa da*" esateko. Ehunka lagun Goiko plazan elkartu eta beheko plazako buelta egin ondoren Goiko plazan amaitu zen elkarretaratzea Mutrikuko herriaren mezua ozen gogorarazita: "*Nik sinesten dizut*".



HERRIA ZAINDU!

Debabarreneko Esperientzia Eskolako 14. Promozioko ikasleek eskualdeko herri guztietarako proiektu soziala diseinatu dute. Aukeratutako gaia, gizalegez jokatzea. Izan ere, herri guztietan, gehiago-gutxiago, gizalegetasun falta somatu da, batez ere lau alderditan: txakur kakak, pintadak eta sinadurak, txixatokiak, edukiontzietara sartu gabe utzitako zakarrak.

Proiektuaren helburua da kontzientzia astintzea eta jendeari gizalege ezaz pentsaraztea, eta erabiliko den leloa hauxe: "Herria zaindu". Proiektuaren bitartez gure herrietako bizilagunek eguneroko bizimoduko alderdietan hobekuntza soma-tzea lortu nahi da:

- Inguru atseginago baten bila jardutea.
- Alderdi ezatseginak ekiditea: usain txarrak, ustegabeko irristadak...
- Bizimodu osasungarriagoa eta eskergarriagoa lortzea.

Proiektuaren baitan prestatutako ekintzak honakoak izango dira:

- Txakur kaken gainean banderatxoa ipiniko da.
- Txixatokietan, zakar-inguruetan eta pintadetan pegatinak ipiniko dira gizalegez jokatzera gonbidatuz.

Ekintza horien osagarri ekainaren 1ean Eibarko Unzaga plazan,udaletxearen aurrean, informazioa emateko mahai bat ipiniko da 18:30 - 20:30 ordutegian "fundamentoa" oparitzeko gizalegeari buruzko hiru esaldi izango dituen sobreetan.

Ildo berean, Mankomunitateari idatzia egin diogu edukiontzi berrien erabileran somatu ditugun arazoak eta zailtasunak agertuz eta konponbideak proposatuz.

Debabarreneko Esperientzia Eskolako ikasleak



*Kalaputxi*k ez du bere gain hartzen aldizkarian hirugarrenek adierazitako esan-iritzien erantzukizunik.

LEA-ARTIBAI
Hileta zerbitzuak - Beilatokia
MUTRIKU Tel.: 943 60 41 20
ONDARROA: Arta Bide, 24 - Tel.: 946 830 960
Mug: 659 879 268

OKILA S.L.
SUKALDEKO ALTZARIAK
EBANIZTERIA
OKILA AROZTEGIA S.L.
Txirritxa - Mutriku
Tel. 943 60 40 18 - Faxa: 943 60 31 03

ZIRIAKO ANDONEGI IPUIN LEHIAKETA

mikroipuinak

HELDUEN MAILAKO IRABAZLEA

Igor Mercado Azkuenaga (Leioa)

IHES

Zortzi urte betetzear zituela, gurasoak etxean ez zeuden arratsalde batez, aitonaren txinbera herdoildua hartu, balkoira atera eta aurreko telaituko kurloiei tiro egin zien Jonek. Lehenengo tiroak txoriak sakabanatu zituen; guztiak bat izan ezik. "Ergel halakoa", egin zuen bere kautarako. Hirugarren tiroak, bere harridurarako, bete--betean eman zion, txoritxoa erlaitzetik espaloira erori-araziz. Izuturik, hilotza lurretik jaso eta ohe azpian izkutatu zuen; egunetara, amak aurkitu. Errieta izan zen etxean: aitaren hitz gogorrak, amaren ulerberatasuna ondoren, arrebaren sinesgaiztasuna, zigorra azkenik. Urtetara, gorputegian aitaren arropa odoleztaturik ikusterakoan, sumina eta amorruaren artetik txikitako zalantza berbera berpiztu zitzaion barrenean. Alegia, zergatik ez zuen garaiz ihes egingo.



Jose Angel Lizardi Alkatea eta Kirmen Uribe idazlea satitutako egileekin.

GAZTEEN MAILAKO IRABAZLEA

Maialen de Abajo Elorriaga (Getxo)

ALTXORRA BABESTU NAHIAN

Atearen hotsa entzundakoan arin urreratu zitzaidan alaba besarkatzera. Erabat beldurtzen gintuen senarraren etxeko giltzen zaratak; bata bestearen babesean ez entzutearena egin genuen, agian elkarri helduta indartsuagoak ginelakoan. Gogor estutu nuen altxorrik garrantzitsuena nuen neska txiki hura. Burura etortzen zitzaidan hitz bakarra "babes ezazu" zen. Behin eta berriz. Hala egin nuen. Baina zoritzarrez banekien etorkizunean ondorio fisikoen zauria gutxienekoa izango zela. Besoetan hartutakoan oheratu nuen. Guztiz lokartuta zegoela ziurtatu arte ez nintzen bere albotik aldendu. Egongelarako bidean senar moz- kortuak hartu ninduen. Orain ni nork babestuko ninduen galdera bakarra. Baina bost. Altxorra nolabait babesturik zegoen.

MUTRIKUAR ONENARI SARIA

Asier Juaristi Iparragirre

MODERNITATEAREN GAUZAK... ORA PRO NOBIS

Zer nolako oroitzapenak! Oraindik gogoan dut erdiko kalen jarri duten argazkiko Maixak astoa tranpakalen utzi eta banan-banan marmita betetzera joaten ginenekoa. Arrain bila aldiz Pikuatxikineko harategi aurrera hurbiltzen ginen saski txikia eskuan hartuta. Eta merkatu plazan, hura giroa! Astigarribiako Torre, Olatzko Gaztañeta eta Kalbaixoko Aitxitxaberri, besteak beste. Eskaintza zabala eta kalitatea nagusi inguruko baserritarek ekoiztutako produktuetan. Otarra handia hartu eta mandatuak egitera!

Bapatean, norbait etxean sartu dela sumatu dut.

"Amona, zertara joan zara Donostiara, telebista berriaren bila ala kartoia eta papera erostera?"





Chen Zeyi “Tzoi”

txinatar jatorriko mutrikuarra

Munduan aparteko tokia zen Txina, hurruna, inoiz iristeko ezina, uste genuen. Gaur egun, mutrikuar asko egonda daude Txinan, aisialdian zein lanean. Eta txinatarrak ere heldu dira gure artera. Dagoeneko, distantziak ez dira gaindiezinak. Hain urruneko herria izanda Txina, beraiei buruz galdetu nahi izan diegu, eta *Chen Zeyi*rengana jo dugu, euskaldunok gure ahoskeraz *Tzoi* esten diogun gazte mutrikuarrarengana, beraietaz piska bat gehiago jakitearren. *Tzoi*k euskaraz hitz egiteko duen erraztasunak harritu gaitu.

Nola iritsi zen familia Euskal Herrira?

Aita etorri zen lehenengo. Txinatik irten eta familiarentzako bizimodu hobe baten bila irten zen. Espainia hartu zuen jomuga eta Bilbora iritsi zen. Bilbon jatetxe txinatar batean hasi zen lanean eta handik Ondarroako jatetxe txinatarrera aldatu zen, sukaldean lan egitera. Ondarroan Euskal Herria deskubritu zuen, eta erabaki zuen hau toki ona izango zela familia ekarri eta denok batera bizitzeko. Hala, duela sei urte eta erdi, ama, arreba eta hirurok etorri ginen eta Ondarroan bizitzen jarri. Nik hamabost urte nuen etorri ginenean eta arrebak zazpi.

Eta Ondarroatik Mutrikura…

Aitak argi zuen familia elkarrekin egoteko moduko lan bat nahi zuela, eta sukaldeak ez ziola hori errazten. Hortaz, lokalak begiratzen hasi zen denda bat jartzeko. Han eta hemen bila ibili ondoren, Mutrikun lortu zuen bila zebilena eta Mutrikura aldatu ginen.

Dena berri-berria zuentzat, nola egokitu zineten?

Oso bestelako herri batera iritsi ginen eta ez zen erraza izan egokitzea, hizkuntzarekin hasita. Zorionez, Ondarroako Institutuan ikasten hasi eta irakasle laguntzaile bat ipini zidaten egokitzapen horretan laguntzeko. DBHko laugarren mailan sartu nintzen kurtsoa bukatzeko lau hilabete falta zirela. Hurrengo urtean errepikatu egin nuen DBH4 eta laguntzailearekin jarraitu nuen. Gainera, Ondarroako lagunekin ere ikasi nuen hizkuntza, baita hemengo ohiturak hartzen hasi ere.

Eta eskolatik kanpoko bizimoduan?

Hortxe ikusi nuen alde nabariena. Izan ere, gure herrian eskolatik berandu irten eta tarte oso gutxi zegoen jolaserako. Hemen, aldiz, eskolak amaitu ondoren kalean ibiltzeko denbora asko dago etxera erretiratu aurretik. Gazteok gauza ezberdinak egiteko aukera handia dugu hemen. Eta kalean dagoen bizitza ere harrigarria iruditu zitzaidan, baita larunbat gaueko parrandarako ohitura ere.

Unibertsitatean euskaraz egindako Historia ikasketak amaituko dituzu aurki…

Ondarroan batxilerra egin ostean Gasteizera joan nintzen EHUn unibertsitateko ikasketak egitera, Historia. Eta hantxe nabil, gustura. Unibertsitatean herri askotako jendea batzen da, eta oso harrigarria egin zait zenbat euskara ezberdinekin egin dudan topo. Eta hor daukat zailtasuna, euskara ezberdin horiek entzuten eta ulertzen. Oraindik irratia eta telebista entzutea kosta egiten zait, baina denborarekin lortuko dudala uste dut.

Txinatik etorri eta hemengo gauzak ikasten, baina hangoei eutsiko diezue, ezta?

Hona etorrita, hemengoari heldu behar diozu, etorkizuna hemen izango dugu eta. Hala ere, gure jatorria zein den ez dugu ahaztu behar, eta hangoak ere barru-barruan gordetzen ditugu. Gurasoek, adibidez, beti esaten didate arrebari txinatar kontuak erakutsi behar dizkiodala eta gure hizkuntza txinatarra ere bai. Gauza berriek aberastasuna ematen digute, baina gure-gureak diren gauzak ere gure aberastasun dira.



APALLU
ITURGINTZA
Telf.: 600 316 381 - 943 02 98 61
San Agustin,3 - Mutriku
apallu@apallu.es www.apallu.es

NT2 PNEUMATIKOAK ETA MANTENTZE-LANAK
BIZKOR AUTOAK
Continental GOODYEAR VREDESTEIN DUNLOP KUMHO TYRE
astelehenetik ostiralera 9:00 - 13:00 / 15:00 - 19:00
Antzomendi industrialdea · 943 607 182 · www.nt2.es

Kultura orientala eta okzidentala. Bi muturretako munduak al dira?

Ezberdintasun kulturalak handiak dira, baina gero eta gauza gehiago dira gauza komunak. Hala ere, askotan hango eta hemengo gauzen arteko aldeez galdetzen didatenean, nik beti erantzuten dut aparteko tokiak izan arren eta kultura ezberdinak izan arren, hemen eta han, han eta hemen pertsonak berdinak direla. Azkenean, ohiturak ezberdinak izango dira, baina pertsonek han eta hemen lan egin behar dute, han eta hemen sufritu egiten dute, han eta hemen poztu egiten dira, eta, jakina, familiaren eta lagunen garrantzia berdina da hemen eta han. Niri zertan garen ezberdin baino, zertan garen berdin pentsatzea eta ikustea gustatzen zait.

Txinako gizartea aldatzen ari da...

Mendebaldeko kultura eta ohiturak sartzen ari dira Txinan. Gure gurasoak gazteak zirela komunismoa indarrean zen, baina ordutik hona gauzak asko aldatu dira. Horrek gauza onak eta txarrak izan ditu, baina, gustatu ala ez, horixe da errealitatea. Txinako kultura tradizionalari sor diezaizkiokeen kalteengatik kezkatuta dago jende asko, baina bizitzak aurrera egiten duenez, berrikuntzak nekez geldituko dira.

Ekialdeko herrietan espiritualidadea modu berezian bizi dela entzuten dugu…

Egia esan, guk ez dugu jarraitzen erlijio jakinik. Konfusionismoan, budismoan, taoismoan... eta erlijio tradizionalean iturriak dituen erlijioa da gurea. Gure etxeko zaharrek pratikatu egiten zuten, baina beraien seme-alabek, guk alegia, ez dugu jarraitzen. Zaharren ustez, familia osoa elkarrekin bizitzea ere oso garrantzitsua da, familia delako guztiaren funtsa.

Nolakoa da emakume eta gizonen arteko erlazioa?


Irudi tradizionalaren arabera, gizonezkoa eta emakumezkoa bi izaki osagarri bezala ikusten dira, batez ere landa eremuko herrietan. Bakoitzak bere eginbeharra daukate, eta bien betebeharra elkartzean familia sortzen da, familia da helburu partekatua. Hirietan, berriz, gauzak aldatzen ari dira, eta osagarritasun hori bananduago dago, beharbada emakumea lortzen ari den independentzia ekonomikoarengatik ere bai.

Jaiotza urtea eta animaliak lotzeko ohitura duzue...

Teorikoki animalia baten urtean jaio direnek animalia horri ematen zaizkion ezaugarriak izango dituzte. Adibidez, aurten txakurraren urtea izanik, aurten jaiotakoek laguntasuna, fideltasuna, ausardia... izango dituzte ezaugarri. Txinako Kultura tradizionalaren elementuetako bat da urtea hamabi animaliarekin harremanetan jartzea. Gaur egun, gazte jendeak gero eta gutxiago begiratzen dio horri ere.

Aurrera begira, nola ikusten duzu etorkizuna?

Integrazioa da lehentasuna. Lehenengo, gizarte integrazioa dut erronka, eta lan-munduan sartzea ere bai. Biak ere batera joan daitezkeela uste dut. Ametsa? Etorkizuna hizkuntzen irakaskuntzatik edota turismotik bideratzea... baina errealitatetik abiatuta betiere. Nahi nuke herri honetan etorkizun bat eraikitzea, nire familiaren ondoan.



islada
FISIOTERAPIA
FISIOTERAPIA, PILATES, ERREHABILITAZIOA, HIPOPRESIBOAK
ANTIGIMNASIA, DIATERMIA (MEDESTEC)
San Agustin 10, behea · 943603655 · islada@islada.org

ERAIKUNTZAK
OLATZ S.L.
Igeltseritza orokorrean, Txalet, Erreforma...
Tel. 943 60 44 10 / 670 41 42 23 - 24
Olatz Auzoa, Urrestieta Baserria - 20830 Mutriku (Gipuzkoa)

EUSKARALDIA

2018ko azaroaren 23tik abenduaren 3ra
Euskaraldia, 11 egun euskaraz

HELBURUAK:

Euskaraz hitz egin eta ulertzen duten herritarren arteko harremanetan hizkuntza ohiturak aldatzea.

Inertziak apurtu eta egunerokoan eragitea, euskaraz dakienak euskaraz ulertzen duenarekin euskaraz egitea.

NONDIK DATOR

Euskarak 365 egun ekimenetik, bi mugarri hartuta:
- Euskal hiztunen hizkuntza ohituretan eragitea eta beren harreman sareetan euskara gehiago erabiltzea.
- Hizkuntzaren normalizazioaren ardura pertsonen eta entitateen artean partekatuta, 2019 urtean mota guztietako entitateek euskararen erabilera babesteko eta bultzatzeko neurriak hartzea.

AURREKARIAK

Donostiako Egia auzoan *Egian euskaraz bizi nahi dugulako* dinamika burutu zuten. Ondoren, beste 20 herri zein eskualdetan. Euskal Herrira zabaldu nahi da esperientzia.

ERABILERA ERAGITEA HELBURU

Euskararen ulermena eta ezagutza zabaltzen doaz Euskal Herrian, oro har. Euskaraz hitz egiteko gai den gero eta jende gehaigo dago. Euskara ulertzen duen gero eta jende gehiago dago. Hizkuntza ohiturak aldatu eta praktika linguistiko berriak bultzatu nahi dira.

EUKAL HIZTUNEN AKTIBAZIOA

Aktibazioak martxan jartzea esan nahi du. Hizkuntzaren erabilerari lotutako kontzeptua da, euskaraz hitz egiten dakitenek edota euskara ulertzeko gaitasuna daukatenek euskara erabil dezaten lortu nahi dugulako.

AHOBIZI

Ulertzen duten guztiei euskaraz egiten dieten lagunak dira.

BELARRIPREST

Gutxienez euskara ulertzen duten kideak dira, gainontzekoei euskaraz aritzeko gonbidapena luzatzen dietenak.

AURRERA BEGIRA

2018ko apirilean Mutrikuk ***Euskaraldia***n parte hartuko duela adierazita, irailean ***Euskaraldia*** dinamikan parte hartzeko herritarren izen ematea hasiko da, *Ahobizi* eta *Belarriprest* modura. ***Euskaraldia*** dinamikako hamaika egunetan identifikazio ikurra eramango dute batzuek eta besteek.

2019 URTEAN

Entitateek beren funtzionamenduan euskarazko harremanetarako espazioak sortzeko neurriak hartzea bilatuko da, euskaraz hitz egin eta ulertzen duten herritarren arteko harremanetan hizkuntza ohiturak aldatzea helburu nagusi hartuta.

EUSKARALDIA

AHOBIZI

BELARRIPREST

AURKEZPEN EKITALDIA

ekainaren 16an
larunbata 12:00


zabiel kultur etxean

ATZERAKO BEGIRADAZ

EL DIA EGUNKARIA, 1931 - 05- 06

Natalio belaustegi "Noizbbait"

Mutrikuko Kronikak



Kirol-Zaleri

¿Zure iritziari erantzuna nai al dezu? Jakin zadazu zuk berriro idatzi bitartean egon naizela, ez bai nion antzik ematen nork idatzi zekian ain egoki. ¿Beraz izen ordearekin agertu e? Jakin zadazu zuk añako etorriarekin idazten ez banuan ere, aiñ ez jakinak ez gerala. Orobat nik etxean detan "makiña" ez daukat zuk diozun egazkiñari jartzeko, baña baditut beste mota batzuk ta nai badezu zuk dezun txaloparentzat emango dizut.

Ez zaizu gaizki etorriko "makiña" orretzaz ontzi berri bat ere.

Agur izparringi ontako zuzendari Jaunari ta baita bertako lantegiko guztiai ere. Orobat Euskal orri ontan idazten duten guztiai ta azkenik nire erritar guztiai, batez ere nik len ez jakiñean aotan ibili ditudanai. Guztioi ondo bizitzea opa dizue azken idazle izan dan onek.

Luistarrai

Agindu nuan zerbait idatziko nuala Luistarrentzat eta emen nator nire esana bete nairik. Badakit gai onetzaz ezer jartzeko motela naizela baña agindu nuan ezkero zerbait jartzera nua.

Luistarren bilera, Gipuzkoan lenengo jarritako erria da guria ta oraintxen esan genezake ia erorian dagoela. Bilerako buru egiten dutenak, lan ta lan or ibiltzen dira zortzi egun aurrez asita "Gure Mutilak" zabaldu eta izpirringietatik aitzen emanaz gure jaia noiz dan, baña ala ere alperrik, gutxi biltzen gera. Ez etortze onek badu errua nunbait.

Luistarren legiak bestien artian debekatua dauka dantza lotuan egitia, ta orregatik gazte askok lagatzen dute Luistar izatia. Ez emengo gazteak dantza lotuzaleak diralako baña bai eresbatzak lotukoak joten ditualako, eta gero, jakina, dantza zaliak diranak ezin dantza egin gabe gelditu.

Dantza lotu zaleak ez dirala sarri erakusten digute. Naikua du, eresbatzak joalei bat edo beste azkekuak jotia txalo ugariak irabazteko, au sarritan ikusi degu, orretarako egun bat Iñazio deunaren eguna zan.

Eresbatzak oitura dagon bezela euzko dantzak joten ditu, danak ziran euzko izenekuak baña bederatzitik zortzi askean egin ziran. An ikusi gendun zar eta gazte alaitasunez beteta eskuak gora jasota ¡ia mutilak! eta gero amaitzian eskuak apurtu biarrian txaloka. Bederatzigarrena "Kalejira" zan eta lotua egin zan, amaitzian iñork ez zuan txalo bat ere jo. ¿Ez al da naikua adierazteko notintzak zer nai duan?

¿Eta zergatik etzaio azkekuak jo eragiten ersbatzari? Guk luistarrak gogorazi bihar oraingo udalai. ¿Nola ez diogu gogoraziko ba? Or dabiltza euskal gizon jakintsuak jo ta auzi bateko Madrira eta besteko bestera lengo lege eta oiturak Euzkadin jartziarren eta ¿guk zer egiten degu luistar anaiak oitura zarren alde lan egin gabe? Oitura zarrak oitura garbiak dira, eta ez emen ikusten degun dantza zikin erbestetik etorritako ori.

Ia anaiak, alkar batzen geran eta gero danon izenean eskatutzeko udalai: esanaz agintzeko erezbatzai azkekuak joteko.

Gure udal gizonak oitura-zazaleak dira eta entzungo digutela uste det. Gaiñera eresbatzen kontua dauanen bat gure lendakari jauna degu, ta, lagunduko digu gure naia irixten.

Ia luistar anaiak berotzen geran eskaera au egiten; ori egiten badegu indartuko da gure bilera eta emango degu aurrekoak eman zigun erakutzi ona gure ondorenguai gure bilera eder onek jarraitu dezan errian gazteak izango diran arteraño. Nastu ta labur

- Elixakuak artuta obeto arkitzen da Arrieta´tar Maria Frantziska. Poztutzen gera.
- Il obiratu dute 67 urterekin, Egaña´tar Josefa. Otoi bat irakurle bere gogoaren alde.
- Asteazkenez ezkondu zan Martinez´tar Kandido, Eleizgarai´tar Benita´kin. Zorionak.

Arrantzaleak

Goizo itxasoratzen dira lurrun ontzietakoak egamotz naian eta arrantza ederra ekartzen dute. Lengo egun batian ekarri zuten "Elenitak" 10 kintxal, "Salbek" 7 eta erdi, "Milagrosak" 8, "Txanbelenak" 6, "Izatsak" 6, "Arantzazuko Amak" 6, "Pilartxok" 9. Amar egin zuan salneurria "kiloak".

EUZKADI EGUNKARIA, 1935 - 04- 29

"Murugain"

Mutrikuko Kronikak



!Arren baña, Jauna! Hainbeste bada ezpadako emen eduki eta bear bearrekoenak daramaguzu!

Oraingoan Iñaki: Lekube eta Urrestarazu´tar Iñaki, Bilbao´ko "Miserikordia" etxean eresien irakasle eta eresbatzako buru zana. Txistulari Batza´ko idazkaria izandakoa, beti betiko Jeltzalea, Mutrikuarrik jatorrenetakoa, bere jaioterritik gogoz egundo aldendu ez dana... bere emazteanetik Donokiratu zaigu 32 urterekin. (Goyan bego).

Jaunaren naia bete bedi! Agur bada, Iñaki gero arte. Etzaiguzu Mutriku osoari berealakotxean astuko. Jai aundietan eresbatzari zure "Mutrikuko abestiak" popurri atsegiña entzun, eta aurrerakoan "jorrai dantza" jatorrak emengo kale xarrak alaitzen dituanean, eta orrelakotan, zeñek ez zu gogoratu?

Au tamala baña! Zoritxarreko gabiltz aspaldian Mutrikuarrak...

¿Zoritxarreko esan det? Ez bada. Oker nago. Zuzpertu eta euren utzunea betetzen alegiña egin dagigun, eta Donokiak bereziki lagunduko gaitu Ba! Alajañetan! Nork leukean Jauna´gan Mutrikuar Jeltzaleak añakotxe "enbajadea": bateko Arno Mendi, Luis Goixerri, Erroman txiki, Arnope... Gaurtik aurrera "Iñaki" ere bai.

SORGINEN GAUA

Ez zen asko falta. Ez zegoen urrun. Eguna iristear zen. Neguari agur esan eta udari ongietorria emateko eguna. Sorginen gaua.

Urteko gau laburrena. Baina hainbat gau lehenago energia berezi bat nabari zen herrian. Iluntasunak kaleak hartzen zituen, argi nahikorik egongo ez balitz bezala. Herriaren jabe izan nahi zuen iluntasunak, aspalditik baitzekien momentua iristean, gau laburreko borrokan, suak irabaziko zuela eta beste urte batez argia nagusituko zela herrian.

Baina urte hartan, gauza arraroak ari ziren gertatzen Arno inguruan; animaliak gaixotzen ari ziren, basoak armiarma sarez estaltzen eta pixkanaka-pixkanaka eguzki izpiak desagertzen zeuden. Egoera, denbora luzean jasandako ilun eta txarrena zen, orkatzak hilik ari ziren agertzen eta gainontzeko animaliak ez ziren beraien babeslekuetatik ateratzen. Zerbaiten beldur ziren.

Sorginek azkar antzeman zuten Arnokoa magia ilun baten ondorio zela, eta ziztu bizian Mendibeltzurako bideari ekin zioten, han baitzegoen Basajauna. Gertaera kontatzean, ahalik eta azkarren Akerbeltzi abisatzeko agindu zien sorginei, hark harrapatuko baitzuen basoa hiltzen ari zen azti hura.

Mutrikuko inguru guztiak harakatzen aritu zen Akerbeltz, gau eta egun, udako gau laburrena iritsi aurretik. Sorgin gauaren bezperan, Arnoko erraietatik iluntasun handi bat zetorrela konturatu zen. Azti iluna Arnoko leizean izkutatuta bizi zen, Akerbeltzek atera zuen arte.

Herritarrrak ere pozik zeuden, herrira iluntasuna ekartzen zuen aztia hilik baitzegoen, eta ospatzeko herritarrak San Juan suaren baitan dantzan egiteko prestatu ziren lehen aldiz. Sorginek sua Burumendin jarri zuten, itsasoaren alboan, mendi tontorretatik eta kobetatik urrun.

Herriko musikariek girotu zuten dantzaldia, eta ordu luzez egin zuten dantzan guztiek. Jira eta buelta, jira eta buelta. Sua itzaltzen zegoela, Akerbeltz txondorraren gainetik salto egiten hasi zen; behin, bitan eta hirutan. Jendea jarraitzen saiatu zen, hiru salto egiten. Batzuk onik atera ziren, beste batzuk sutara erori ziren. Baina haien erredurak hurrengo egunerako sendatu ziren, suaren errautsen ondorioz.

Konturatu orduko, eguna argitu zuen. Akerbeltzek eta sorginek mendira egin zuten ihes, eta beste behin, uda zoragarri bat hasi zuten Mutrikuko herritarrek.

Behin hau esanda, saiatu gure arbasoen gisara ospatzen sorgin gaua, urteko gau motzena. Jan, edan, dantza egin…eta gogoratu salto eginez gero hiru aldiz salto egin behar dela, eta azaleko arazoak izanez gero bertako sugarrekin sendatuko direla.





Kaixo Txantxangorrixak!

Barre algaraz, pozez eta alaitasunez betetako eguna izan zen *irri eguna*. Zuek gabe hau ez zen posible izango!

Goizean hegazkin zein trenak hartu ea munduan barrena ibiltzeko eta kultura ezberdinak ezagutzeko aukera izan genuen. Herriko hainbat gune apaindu genituen eta bertan hainbat jolas burutu genituen herriari kolorea emanez. Txikienekin, berriz, gerria mugituz igaro genuen goiza.

Arratsaldean, Goiko plazan batu ginen guztiok mozorrotuta, baita herriko laguntxo buruhandiak ere, Oker, Alper, Txotxolo eta Txoro gure festara batu ziren. Beheko plazara iristean, Nievesen eskutik dantza saio ederra jaso ondoren, zuok, txantxangorriok, barnean daramazuen artistatxoa azaleratzeko aukera izan zenuten, guztiok aho zabalik utzi gintuzuen dantza bikainak erakutsiz. Bukatzeko, egun guztian zehar martxan egon zen zozketaren irabazleak argitara eman genituen. ZORIONAK irabazleoi eta gure eskerrik beroenak Tipi-tapako kideei, Nievesi eta baita gure argazkilari Olatzi ere. Zoragarrixak zeate!!!

Aurretik dugun uda paregabearen aurrerapen txiki bat besterik ez da izan. Udara begira, ez ahaztu *gureasoen batzarra ekainaren 25ean* izango dela. Aurreragojasoko duzue informazio guztia.

Eskerrik asko etorri zaretenoi, danon arten aurtengo *IRRI EGUNA* borobila izatea lortu dugu.



Udan ikusiko dugu elkar!

txantxangorrixak@gmail.com









PERRAS arrandegia

arratsaldez zabalik
(osteartetik ostiralera)
merkatu plaza
607 92 09 25

txirritxa .com
SAR ZAITEZ GURE WEB ORRIAN ETA AURKI EZAZU PROMOZIO BEREZIAK!
Tel. 946 832 600
Gardotza Industrildea, 3 > 48710 Berriatua > Bizkaia

Treiñeruak majuran: izurdiei segika (I)

Lehengo hillian, maiñelek zorrotz betetzen zeuen usadixua aitxatu gendun:* konpaiñia. *Majuran, treiña botatzen zauanak eskuko tiria ekarri arte, hurreratzen zakozen barkuek arrantza hartan "parte hartzia" eskatu zeiken. Halaixe zan ohitxueria. Baten batek pentsau leike gizalegez jokatziarren egitxen zeuela hori, baiña bestelako errazoia do horren atzian: maiñelen artian istillu eta hasarrerik ez egotia.

Lehengo hillian, maiñelek zorrotz betetzen zeuen usadixua aitxatu gendun: konpaiñia. Majuran, treiña botatzen zauanak eskuko tiria ekarri arte, hurreratzen zakozen barkuek arrantza hartan "parte hartzia" eskatu zeiken. Halaixe zan ohitxueria. Baten batek pentsau leike gizalegez jokatziarren egitxen zeuela hori, baiña bestelako errazoia do horren atzian: maiñelen artian istillu eta hasarrerik ez egotia.

Izurde taldiari segika, gehixenetan, hainbat treiñeru ibiltzan zan. Gorrixa topatu eta lehelen aillatzen ziranak treiña botatzen hasten ziran. Askotan baiña, bigarren edo hirugarren aillatzen ziranak ere, zeozer harrapatu nahixan, beuren treiñak botatzen hasi eta akabo! Arraiñak ihes. Ez batentzat, ez bestientzat. Hori dala-eta, askotan, auskan ibiltzen ziran.

Holakorik ez gertatzeko, aspaldi, "arau" bat asmatu zeuen: lehelenguak *etxadia* amaitxu arte, ezin zeikela beste iñork treiñik bota. Lekeitxioko arrantzaliek, esaterako, halaixe egitxen zeuen 1536. Urterako, "*no heche ninguna red ni redes por de dentro al sardinero que de primero hechare la red e començare a çerrar el manjue ni le impida en ninguna manera*".

Antxoba edo sardiña gorrixa topau bakarrik ez, beste bi gauza ere egin bihar izaten ziran aburo-aburo: batetik, treiñerua tokirik egokixenian jarri etxadia egitxeko, eta, bestetik, treiña botatzen hasi. Hala egin ezkero, iñork traba egin gabe amaitxu zeiken maniobria. Baiña, sarritxan, hori ez zan betetzen eta eztabaidak eta burrukak sortzen ziran. Aspalditxik dokumentatzen dira holakuak, eta horren abidide, bi auzi edo pleito ekarri ditxugu hona, bata 1801ekua eta bestia 1819kua.

Mutrikuarren arteko hasarria

1801eko ekaiñaren 17xa, goizeko 7:30xak. Mutrikuko hiru arrantzale, Manuel Antonio Urreiztieta alkatiaren aurrera agertu dira, salaketa edo denuntzia bat jartzeko. Sardiñetarako txalopa bateko (*lancha sardinera*) maiñelak dira Tomas Lekunberri (patroia), Francisco Xavier Oiarbide (aurrekua) eta Francisco Xavier Salvador. Danetara, 14 lagunek osatzen deue tripulaziua.

Lekunberri eta Salvador min hartuta aillegatu dira gaur itsasotik. Mutrikuko alkatia epaillia ere badanez (*alcalde y juez ordinario*) azaldu dixue, portutik legua laurden batera, sardiña-arrantzan zabiltzela beste txalopa bateko tripulaziuarekin auskan egin deuela. Miguel Osa da ontzi hortako patroia, hor ere 14 lagun dabilz. Osak-eta eraso egin dixue makilla eta arraunekin. Bestiak ere ez dira geldi egon eta hainbat arrantzale miñ hartuta porturatu da.

Alkatiak bi tripulaziuak herriko kartzelan sartu ditxu harik eta gertatutakua argitxu arte. Bueno, danak ez, batzuk Roque Antonio Egaña zirujauarekin gelditxu dira heridak osatzen.

Alkatiak egunian bertan eta bixaramunian deklaraziua hartu dixue tripulaziokuei, baitxa beste lau lekuko edo testigori ere. Tomas Lekunberri patroiak azaldu deu, aurreko astian antxoba arrantzan zabiltzela, gorabehera bat euki zeuela Miguel Osaren txalopakuekin, "*estando el declarante con su lancha a la pesca de anchova, observando la direccion de un rojo, llegó Miguel de Osa con su lancha, y tirando la treña o red cerradera, cojió cosa de unos 30 millares de anchova, cuia accion les causó vastante sentimiento al declarante y su tripulacion mediante a que estavan mas proximos, y en mejor disposicion para tirar la red al citado rojo*".

Lekunberriren tripulaziuak azaldu doanez, aurreko egunian ere –hillak 16– beurak treiña ("*la red cerradera que llaman treña*") botatzeko tokirik onenian bazozen ere, Osaren txalopakuak aurreratu eta etxadia egin zeuen. Treiñ erdixa botata euki arren, antxoba-gorrixa barru aldera zijuala ikusitxa, Lekunberrik-eta euren treiña bota zeuen. Arraiñak treiñ barruan zakezela, Miguel Osaren tripulaziokuek harrixak bota eta arraiñek alde egitxia eragin zixuen. Inork ez zoan arraiñik harrapatu. Eztabaida haundixa euki zeuen orduan; batzuek, etxadia egitxeko toki egokixan egon gabe bota zeuela treiña, bestiek, treiña lehelen beurok bota zeuela...

Ekaiñaren 17xan, goizeko seirak aldera moillan hitz gogorrak esan dixuez alkarri. Gerotxuago, Lekunberriren txalopia itsasoratu da, eta handik tarte batera Osarena. Lekunberriren txalopia, Santabata parian, gorri baten atzetik dijuala, Osaren tripulaziokuek mehatxu egin dixue: "*atraca atraca, que los matemos a los raios*". Deklaraziuan beste arrantzale batek bestela gogoratzen deu: "*atraca, que matemos a los demonios*". Hitzetatik eskuetara pasatu dira eta eraso egin dixue. Eskura zakena erabillitxa gaiñera: txardangua, arraunak, kutxillua... Odoletan eta min hartuta dozela, bi txalopak portura juan dira.

Alkatiak, batzuen eta bestien deklaraziuak entzunda, ekaiñaren 25ian eman deu epaixa edo sententzia. Miguel de Osa patroiari eta bere tripulaziuari 50 duka-

teko isuna jarri dixue, baitxa min hartu zeuen maiñelen osasun-gastuak pagatu eragin ere.

Alkatiak auskan egitxen hastia zigortu deu hola, baiña gogoratu deu treiña lehelen botatzen doanak eskubidia dakala maniobria lasai amaitzeko. Horren berri eman dixue Mutrikun sardiñetarako txalopetan dabiltzen sei patroiei, "*que la lancha que primero empezare a echar la red, no sea impedida ni molestada en cerrarla, ni en asegurar la pesca que tubiere dentro del seno de la red, arrojando piedras o de otra forma*". Hori egin ezkero, 50 dukateko multia. Hori bai, halakorik gertatu ezkero, euren kasa jardun gabe, justiziakuengana juan biharra ere azpimarratzen deu epaixak, "*se abstengan a tomar por si la satifaccion, sino que acudan a la Justicia a pedirla*".

Gorabeherak ondarrutarrekin

Bigarren auzi hontan treiñeruak aitxatzen dira; hasieran "lancha menor sardinera" eta "lancha sardinera", eta aurrerago "lancha treinera". Hori ikusitxa pentsau leike 1801ekuak ere treiñeruak zirala, izan ere han "lanchas sardineras" izentatzen dira.

Blas Eduegik, Mutrikuko treiñeru bateko patroiak, 1819ko uztaillaren 9xan Ondarruko treiñeru batekin eukitxako gorabeherak salatzera juan da Juan Bautista Sustaeta Ondarruko alkatiarengana.

Hola deklaratu deu Eduegik, "*andando en seguimiento de tollinos, juntamente con otras lanchas de este puerto, y del de Ondarroa, sacaron una majua de anchova y haviendo llegado yo con dha lancha antes que ninguna otra tiré la treña, y teniendo ya asegurado en ella el rojo o monton mui grande de anchova, tubo valor una lancha de Ondarroa que manda Miguel cuio apellido ignoro [Etxaburu], de tirar tambien la treña sobre la nuestra, fuera de toda regla y costumbre*".

Azaldu dio, Mutrikun eta inguruetan arrantzia ez oztopatzeko ohitxueria dauala, "*en Motrico, y en otros puertos de mar donde sus naturales se egercitan en la misma especie de pesca se castiga con severas penas a todo aquel que interrumpe a su proximo este libre egercicio de la pesca con redes*".

Hori Mutrikuko treiñerukuen bertsiua, baiña Andres Larrinaga ondarrutarrak deklaratu doanez, antxoba-gorrixak ur-azalera erten doanian mutrikuarrak aurreratuegi zozen eta ondarrutarrek esku-eskura zaken majuria. "*Iban en seguimiento de tollinos dhos Eduegui y Echaburu, llebando el ultimo en dho seguimiento algo mas bentaja que el primero, pero sin duda con alguna detencion que debieron hacer dhos tollinos, y Echaburu se le presentó a este el mencionado Eduegui en la proa de la lancha, y entonces mismo los indicados tollinos sacaron el rojo o manjuba que llaman, y principió la lancha de Blas de Eduegui y su tripulacion a tirar la red para rodear la manjuba o el gorri referida*". Toki egokixauan zauala-eta, Miguelen tripulaziuak ere treiña bota zoan.

Ondarrutarrek badakixe izurdiek batzuetan martxan dijuazela atzera egitxen deuela, eta gorrixa uste ez dan tokixan atera leikela. Halaixe azaldu deu Francisco Etxaburu ondarrutarrak: "*muchas veces sucedia el dar vuelta los tollinos para atras, y que por lo mismo sería mas combeniente el que quedase en por entonces en la popa de la lancha del insinuado Blas de Eduegui, y apenas suspendieron la marcha que llebaban, acia la parte del ababor donde se hallaban, sacaron el rojo o manjuba los recordados tollinos*".

>>>>>>>> <<<<<<<<


REGLAMENTO
ÚNICO
PARA LA PESCA DE LA
"MANJUA"
EN LAS PROVINCIAS DE ASTURIAS,
GUIPÚZCOA, SANTANDER y VIZCAYA
Aprobado por la Ilustrísima Dirección
General de Pesca Marítima.

>>>>>>>> <<<<<<<<

Juan Egiguren ondarrutarrak holaixe azaldu deu zein zan etxadia egitxeko tokirik aproposena, "*por ser costubre que constantemente se ha observado de tirar primero la red la lancha que tiene el gorri acia la parte de ababor*". Eta Bartolome Badiola ondarrutarrak: "*la costumbre que desde su jubentud a esta parte se ha obserbado en estos puertos en el ejercicio de manjubas y gorris es de tirar la red aquella que tiene mejor suerte o aquella que pueda cojer antes*".

Majurako araudixak

Haserriak eta gora-beherak amaitzeko, araudi ezberdiñak idatzi ziran. 1935eko otsaillaren 27xan, esaterako, Bizkaiko eta Gipuzkuako arrantzale-kofradixak Deban batu ziran eta "*Reglamento para la pesca de la Manjua*" onartu zeuen. Aurrerago, 1941eko urtarrillaren 31n, Bizkaiko eta Gipuzkuako arrantza-federaziuak Bilbon alkartu ziran Asturias eta Kantabria aldekuekin: "*Reglamento único para la pesca de la Manjua en las provincias de Asturias, Guipúzcoa, Santander y Vizcaya*".

Josu Larrañaga Arrieta







LEIRE, ENERITZ eta MIKELE

Zorionak Hirukote! ondo ondo pasau zeuen egunian ta aprobetxau geurekin! Matxo potolo bat. Inkixak.



NAIRA

Zorionak etxeko txipiztinari maiatzaren 31an 4 urte egingo dituelako. Matxo goxo--goxuak denen partez.



DUNA

Zorionak eta muxu handi bat zuretzat!



AIMAR, AIERT, EKHI, ENERITZ eta EÑAUT

Zorionak gure pilotari gazteei!
Gipuzkoako txapeldun! Eutsi horri eta jarraitu horrela!



AIORA

Zorionak etxeko guztion eta auzoko lagunen partez. Muxu handi bat zuretzat, polita!



LARRAITZ

Ekainean urteak betetzen dituzu-eta, zorionak etxeko guztion partez. Jarraitu beti bezalako alaia izaten!

ZORIONTZEKO MODUAK

E-POSTA kalaputxi2001@gmail.com
aldizkaria@kalaputxi.eus
WHATSAPP **635748393**
ESKURA **ANSORREGI ZAPATA-DENDA**
BUZOIAN **LUARDO BEHEAN**



Ristorante AzkenEtxe
egurrezko labean egindako pizzak
italiar sukaldeko zapore guztiak
parrilladak · ospakizunak
(ezkontzak, familia-bazkariak, taldeentzako menu bereziak...)
asteazken iluntzetik igande gauera arte
943 60 34 39 · 636 386 016 · ristorante.azkenetxe@gmail.com · Kalbario gaina, Mutriku

OKINDEGIA
GREGORIO AZKUE
POTERO
DENDA.....943603643
OKINDEGIA.943604512

Gorritxu autoak
Pol. ANTZOMENDI · Galdona bidea
MUTRIKU 943 60 31 86
gorritxuautoak@hotmail.com

BERISTAIN
DENDA LURRINDEGIA ESTANKOA
Barrenkale, z/g
943 60 35 44

Argazki Zaharrak



1974 urteko Lehenengo Jaunartzeak
Maiatzaren 24an egindako
Lehenengo Jaunartzearen osteko agurra.



1983 urtea, Arraun Taldeko arraunlari gazteak
Jon Talledo, Joxeba Lizardi *Kaialde*, Joxemi Bedialauneta *Papardo*, Mikel Goenaga *Txaparro* eta Eugenio Uranga *Marrukax*





ANSORREGI
oinetakoak

erdiko kalea 9
mutriku
943 60 33 42
agerretxo@gmail.com

Joseba Iñaki Eleizgarai
masajista eta osteopatia
Tel: 630 788 059 - Konte kalea 22, Mutriku

www.kalaputxi.eus/**botikak**

ZAINTZAKO BOTIKAK

(gaueko 10ak arte)

MAIATZA		EKAINA	
21etik 24ra	Hiart Burgoa	1etik 3ra	Lasuen-Elezgarai
25etik 27ra	Amaia Zalduegi	4tik 7ra	Amaia Zalduegi
zapatu (26) goizean, Lasuen-Elezgarai		8tik 10era	Hiart Burgoa
28tik 31ra	Lon Apraiz	zapatu (9) goizean, Lon Apraiz	
		11tik 14ra	Lasuen Elezgarai
Gauetan, egunero (22:00-00:00):		15etik 17ra	Lon Apraiz
Pilar Etxeberria Botika		18tik 21era	Hiart Burgoa
Errosario kalea 26, Elgoibar		22tik 24ra	Amaia Zalduegi
Gauetan, egunero (22:00-09:00):		zapatu (23) goizean, Lasuen-Elezgarai	
Idoia Lafuente Botika		25etik 28ra	Lon Apraiz
Sostoatarren kalea 10, Eibar		27tik 29ra	Amaia Zalduegi

MENDI IRTEERAK

ekainak 17
Leitza - Ireber (1208 m)

uztailak 6, 7 eta 8
Pirinioak:
Taillon (3144 m) eta inguruak

irailak 9
Ortzaize - Haltzamendi (813 m) -
- Baigura (1474 m) - Heleta

urriak 14
La Leze - Olano (1082 m) -
- Arbarrain (1118 m) - Otzaurte

azaroak 18
Araia - Aratz (1445 m) - Arantzazu

abenduak 2
Ondarroa inguruetan zeharkaldia eta bazkaria

Burumendi Mendi Elkartea

ODOLA EMATEA

ekainak 1, 18:00etan
anbulatorioan

Gipuzkoako Odol Emaileak

A G E N D A

maiatzak 26, zapatua
ERROMERIA eguna
Gure Ametsa Dantza Taldeak antolatuta
- Goizean, txistularien kalejira
- Eguerdian, dantzarien kalejira eta dantzaldia
- Bazkaria
- Arratsaldean, Erromeria
- Iluntzean, Kantujira
- Gauean, euskal kantuen bertsio-gaua Gaztetxean

Historia Jardunaldiak

maiatzak 31, eguena
Xabier Irujo
Genozidioa Euskal Herrian

ekainak 7, eguena
Leyre Arrieta
Hemen Euskadi Irratia: Eusko erresistentziako gudarien deia

ekainak 31, eguena
Borja Aginagalde
Zabiel jauregia eta garaiko gizartea
zabiel kultur etxean 7etan

ekainak 2, zapatua
II. ZUBI MEMORIALA
Errugbi Topaketa
San Miguel Futbol zelaian gozeko 11:00etatik aurrera

ekainak 3, domeka
ARNOko mendi lasterketa

ekainak 16, zapatua
EUSKARALDIA
aurkezpen ekitaldia
Zabielen, 12:00etan

ekainak 17, domeka
Umeen Euskal Jaia
aurkezpen ekitaldia

ekainak 23, zapatua
SAN JUAN SUA
Musika, dantzak, antzerkia...
Burumendiko zelaian

2018ko ESTROPADAK

TRAINERILLAK
maiatzak 26-27 Euskadiko Txapelketa

TRAINERUAK
ekainak 2 Mutrikuko XIX. Bandera
uztailak 7 ARC-2 Liga. Yurrita Group bandera
uztailak 11 Gipuzkoako Txapelketa

egitarauak eta deialdiak: **aldizkaria@kalaputxi.eus** edota **whatsappa 635748393**

www.kalaputxi.eus/agenda



Uzuri
RPS 183/12
ELGOIBAR - DEBA
optika audio
DEBA, Ostolaza 7 - Tel. 943 19 21 92
ELGOIBAR, San Frantzisko 21 - Tel. 943740359

Igualatorioarekin eta
Osakidetzarekin
lan egiten dugu

Audioprotesista
egunero zentroan
Audiometriak doan

OPTIKA VITORIA

OPTIKA • AUDIFONOAK

ERRBERA 16 • 48700 ONDARROA • 946134138 • mvitoria@cnoo.es



UDA IKASTAROA

80 ORDU

ekainaren 25etik uztailaren 20ra
(4 ordu egunean)

Prezioa: 123 €
Ikasle eta langabetuentzat: 77 €

Bekatze-sistema

Matrikulaldia:
ekainaren 15era arte

DEBABE UDAL EUSKALTEGIA

LUARDO ETXEA, Sabanika aldapa, 4 · 943 60 30 94

DEBA: Ifarkalea, 12 - 943 19 22 36
ELGOIBAR: Kalebarren plaza, 2 - 943 74 27 31

CÓNDOR

Arrain kontserbak



ZIZZO BILLANTE HNOS. S.A.

Mijoa Industrialdea, P-21 · 20830 MUTRIKU (Gipuzkoa) Tel.: 943 60 31 41 Fax: 943 60 44 39

E
12.00.566/SS
C.E.